

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	POLIMEROEN TRANSFORMAZIORAKO MARRAZKETA TEKNIKOA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0723		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Polimeroen transformazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Kautxua transformatzeko eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Polimeroak transformatzeko makinak eta instalazioak prestatzea (Zeharkakoa).	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Polimeroak transformatzeko makinak eta instalazioen sistema mekanikoen, hidraulikoen, pneumatikoen eta elektrikoak eraginkortasuna, eta haien mantentze-lanak (Zeharkakoa)	Iraupena	70
	Polimeroen transformaziorako ekipoen buruen, moldeen eta matrizeen konfigurazioa (Zeharkakoa)		40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0326\_2 gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin, planoak interpretatzeari dagokionez

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Molde edo eredu bat lortzeko krokisak, planoak eta txantiloak interpretatzea.

EI1.1 Planoak interpretatzea eta txantiloak prestatzeko eskalatzeko, neurketa- eta ebaketa-eragiketak egitea.

EI1.2 Elementu normalizatuak hautatzea, jasotako espezifikazioen arabera.

EI1.3 Materialak prestatzeko ondorengo eragiketetan kontuan izan behar diren oinarriko kotak eta perdoiak adieraztea.

EI1.4 Planoak interpretatuz, piezen mekanizaziorako behar diren txantiloak lortzea.

EI1.5 Sinbologiaren, errotulazioaren eta koten beharra arrazoitzea, eta irudikapen-motarekin lotzea.

A2: Polimeroen transformaziorako moldeen edo ereduaren adierazpen grafikoa egitea.

EI2.1 Moldeak edo ereduak grafikoki irudikatzea eraikuntza-, muntatze- eta desmuntatze-lanetarako behar diren xehetasun guztiekin (hala nola bistak, ebakidurak eta sekzioak).

EI2.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, prisma edo zilindro zuzen jakin bat sistema diedrikoan marraztea —oinarritik eta planotik abiatuta—, plano horizontalean etzatea, eta prismaren eta zilindroaren itzal propioak eta, eguzki-argiztapena edo argiztapen puntuala adierazteko, diedroaren planoetan jaurtitako itzalak aurkitzea.

EI2.3 Irudikapen-sistemak konparatzea, eta haien erabilera-eremua zehaztea.

##### Edukiak

#### 1. Polimeroen transformaziorako moldeen edo ereduaren adierazpen-sistemak.

- Sistema diedrikoa: Oinarriak.
  - Proiekzio-planoak.
  - Puntuaren, zuzenaren eta planoaren proiekzioak.
  - Trazak.
  - Ebaketa, paralelismoa eta elkarzutasuna.
  - Distantziak.
  - Plano-eraihspenak, -biraketak eta -aldaketak.
  - Irudikapena.
  - Sekzio lauak.
  - Molde edo modeloen xehetasun espezifikoak: injekzio-puntuak, elikadura-kanalak eta huts-sistemak.

#### 2. Polimeroen transformaziorako moldeen edo ereduaren planoen interpretazioa.

- Oinarriak. Pieza industrialak irudikatzeari buruzko arauak.
  - Bisten hautaketa.
  - Krokisak egitea.
  - Forma industrialen irudikapena.
  - Bista, ebakidura eta sekzioen antolamendua.
  - Eskalak.

- Marrazki baten interpretazioa.

### 3. Polimeroen transformaziorako moldeen edo ereduaren kotatze-printzipioak.

- Akotazio-sistemak. Kotatze-arauak betetzea.
  - Perdoiak: Oinarriak. Doikuntza-motak. Nomenklatura. Doikuntzak aukeratzea. Marrazkietan perdoiak kontuan hartzea.
  - Perdoidun akotazioei buruzko arauak.
  - Perdoi geometrikoak:
  - Formaren eta kokapenaren perdoiak. Azaleko ikurrak eta idatzizko argibideak.

#### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Kautxua transformatzeko eragiketak.